

ARABAKO BIDEAK SA (kide bakarreko sozietatea)

Urteko kontuak

- 2020ko ekitaldia

ARABAKO BIDEAK SA (kide bakarreko sozietatea)

IFZ: A-01361237

MEMORIA

2020ko ekitaldia

(eurotan)

1. oharra: SOZIETATEAREN ERAKETA, JARDUERA ETA LEGEZKO ARAUBIDEA

1.1- Eraketa eta egoitza soziala

Arabako Bideak SA (kide bakarreko sozietatea) (aurrerantzean, “sozietatea”) sozietate anonimo eratu zen 2003ko abenduaren 15ean, denboraldi mugagaberako.

Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 1044/2003 Erabakiari jarraiki sortutako sozietate publikoa da. Sozietatearen kapitala oso-osorik Foru Aldundiarena da eta, beraz, kide bakarreko sozietatea da.

Sozietatearen egoitzaren helbidea honakoa da: Probintzia plaza, z.g., Gasteiz (Araba).

1.2- Jarduera

Arabako Bideak SAren xedea hauxe da: bere kabuz edo hirugarren pertsonen bitartez, Gasteiztik Eibarrerainoko AP-1 autobidea egin, kontserbatu, mantendu eta ustiatzea, Arabako Lurralde Historikoa zeharkatzen duen zatian.

Sozietatearen helburu sozialaren barruan aurreko paragrafoan adierazitako jardueraz gainera, hauek ere sartzen dira:

- a) Aurrekoez bestelakoak izanik, haietan eragina duten azpiegitura obrak, baldin eta haien eragin eremuaren barruan egiten badira edo trafikoa antolatzeko beharrezkoak badira, eta Arabako Foru Aldundiak sozietatea behartzen badu obren gauzatze proiektua egitera edo soilik obrak gauzatzera.
- b) Kontzesioan dituen autobide, errepide, tunel eta zubietako zerbitzu eremuak ustiatzeko ekintzak eta horien osagarriak direnak.
- c) Honako ekintza hauek: zerbitzuguneak, garraio zentro integratuak eta aparkalekuak, baldin eta horiek guztiak azpiegitura haien eragin eremuaren barruan badaude; bestalde, eremu hori zein den aplikatu beharreko legezko xedapenek zehazten dute.
- d) Garraio eta komunikazio azpiegiturekin loturik dauden jarduerak, aplikatu daitezkeen xedapenen arabera.

Azaldutako jarduerak sozietateak, osorik nahiz zati batean, zeharka egin ahal izango ditu, helburu berdina edo antzekoa daukaten beste sozietate batzuetako partaidetza dela medio.

2003ko maiatzaren 8an, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; horren bidez, besteak beste, AP-1 autobidea 2007. urterako amaituta egon zedin beharrezko baliabideak jarri ziren eta autobide horri aplikatu dakizkiokeen tarifak edo bidesariak finkatu ziren.

2004ko urriaren 26an, kudeaketa-akordioa sinatu zuten Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Bideak SA sozietateak. Horren bidez, Arabako Bideak SA sozietateari esleitu zitzaizkion autobidea zuzeneko kudeaketako erregimenean egin, kontserbatu, mantendu, ustiatu eta finantzatzeko lanak. Akordio horrek, besteak beste, Arabako Bideak SA sozietateak autobidearekiko dituen eskubideak eta betebeharrak eta Arabako Foru Aldundiaren eskumenak, eskubideak eta betebeharrak arautzen ditu.

Autobidearen finantzaketari dagokionez, Arabako Biltzar Nagusiek otsailaren 9ko 5/2004 Foru Araua onetsi zuten; horren bidez, Arabako Bideak SA sozietateari baimena eman zitzaion

autobidea egiteko behar adina finantzaketa kontratu sinatzeko. Finantzaketaren funtsezko baldintzetako bat da Arabako Foru Aldundia ez zorpetzea, kontu nazionalerako eta eskualdekoerako Europako sistemak (SEC 95) eta aurrekontuen egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legeak dituzten ondorioetarako.

Era berean, 2003ko otsailaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek akordioa sinatu zuten, Inbertsio Publikoaren aldeko Finantza Laguntzarako Esparru Plana garatu eta aplikatzeko. Akordio hori 2004ko urriaren 15ean aldatu zen, hasierako akordioko proiektuetarako hasieran aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak eta urte anitzeko planak aztertzeke.

Berrikuspen horretan, Eusko Jaurlaritzak autobidea eraikitzeke emandako diru kopuru hauek jaso ziren:

2003	2004	2005	2006	2004
6.010.000	12.020.000	11.510.000	6.010.000	35.550.000

Inbertsio beharren arabera, finantza erakundeekin epe luzerako kredituak harpidetu dira. Kreditu horiek, funtsean, honakoen bidez antolatzen dira: a) epe luzerako tartekako kreditu kontratu bat, eta b) eraikuntzako kreditu kontratua bonuen bidez mugigarri bat. Gainera, BEZ kreditu kontratu bat sinatu zen, autobidea egitean jasandako balio erantsiaren zerga finantzatzeko.

Proiektuak finantzatzeko ereduan oinarritzen da finantzaketa. Eredue horretan, cash-flow librearen % 100 banku zorra kitatzeko erabiltzen da. Baina, 2008ko apirilean mendeko mailegu bat sinatu ondoren, ez da libre dagoen diruzaintza osoa banku zorra kitatzeko erabiltzen, baizik eta kontuan izan behar da zorraren zerbitzuko estaldura ratioa.

AP-1 autobidea eraikitzeke proiektua, Arabako lurraldean, hiru zatitan banatu zen:

1. zatia: Gasteiz-Eibar autobidea egiteke proiektua. Zatia: Luku – Gipuzkoako probintzia muga.

Proiektu hau 2004ko apirilaren 27an esleitu zen, 75.637.555 eurotan.

Obra honen zuinketa akta 2004ko maiatzaren 10ean egin zen eta, horrekin batera, autobidearen Arabako zatia egiteko lanei ekin zitzairen.

2. zatia: Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Zatia: Etxabarri-Ibiña – Luku.

Zati hau egiteko lehiaketa 30.540.972 eurotan esleitu zen, 2005eko abenduaren 30ean.

Obra honen zuinketa akta 2006ko apirilaren 19an egin zen.

Arlabango tunela: Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Arlaban – Eskoriatza Iparraldea zatia.

Arlabango tunela Arabako eta Gipuzkoako lurretatik doa. Tunelaren Arabako zatia Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo zuela itundu zuten Arabako eta Gipuzkoako foru aldundiek BIDEGI, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA, Gipuzkoako foru sozietate publikoaren bitartez.

Horrela, erabaki zen sozietateak Arabako lurraldean egin beharreko obraren kostua eta instalazio erkideen kostuaren proportziosko zatia ordainduko zituela; berdin du horiek non kokatzen diren. Halaber, bere lurraldean tunelaren eraikuntzarekin loturik dauden lurrak ipini beharko zituen.

Autobidea egitean izandako atzerapen eta kostu osagarrien ondorioz, mendeko bi mailegu osagarri eskatu ziren 2008ko eta 2010eko ekitaldietan. Horien zenbatekoa 12.000.000 eta 9.636.000 euro izan zen, hurrenez hurren.

Sozietatea 2009ko maiatzaren 22an hasi zen AP-1 Autobidea ustiatzen.

1.3- Lege araubidea

Sozietatea bere sozietate estatutuen eta indarreko kapital sozietateen legearen bidez zuzentzen da.

2. oharra: URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1- Irudi zehatza

2020ko ekitaldiko kontuak lortzeko sozietatearen kontabilitate erregistroak erabili dira eta indarreko merkataritza legediaren eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauen arabera egin dira, irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren eta abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretuaren bidez azken horri sartutako aldaketak aplikatuz, ondarearen, finantza egoeraren eta sozietatearen emaitzen irudi zehatza eta eskudiru fluxuen egoeran sartutako fluxuen benetakotasuna erakusteko.

2.2- Aplikatu diren kontabilitate printzipioak

Urteko kontuak egiteko Merkataritza Kodean eta Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako kontabilitate printzipioak aplikatu dira.

2.3- Aurkezteko moneta

Kontabilitatearen arloan indarrean dagoen legezko araudia betez, urteko kontuak eurotan adierazita aurkezten dira.

2.4- Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Urteko kontuak prestatzean, kontabilitateko zenbatespen nabarmenak aplikatu eta usteak, zenbatespenak eta hipotesiak egin behar dira sozietatearen kontabilitateko politiken aplikazioaren prozesuan. Zentzu honetan, jarraian uste edo konplexutasun maila altuagoa eragin duten alderdien edo hipotesiak eta zenbatespenak urteko kontuak prestatzeko adierazgarriak diren alderdien xehetasunak laburtu dira:

a) Kontabilitateko zenbatespen aipagarriak eta hipotesiak

Horniduren kalkuluak ziurgabetasun handia du. Kalkulu horiek eskuragarri dagoen informazio berriaren arabera alda daitezke.

Era berean, ibilgetuen balio bizitzaren zenbatespena balioespen askoren mende dago. Zenbatespen horiek informazio berrian arabera alda daitezke.

b) Zenbatespen aldaketak

Sozietatearen administratzaileek egindako zenbatespenak 2020ko abenduaren 31n zegoen informaziorik onenaren arabera kalkulatu badira ere, baliteke etorkizunean izan daitezkeen gertakariak hurrengo ekitaldietan aldatu beharra eragitea. Hurrengo ekitaldietan egin beharko liratekeen egokitzapenek eragindako aldaketen ondorioa urteko kontuetan erregistratuko litzateke aurrera begira.

2.5- Informazioa alderatzea

Merkataritzako legeriarekin bat etorritzat, administratzaileek 2020ko ekitaldiko kopuruez gainera, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte, balantzearen partida bakoitzarekin, galera-irabazien

kontuarekin, ondare garbian izan diren aldaketen egoerarekin eta eskudiru fluxuen egoerarekin, erkatu ahal izateko. Bi ekitaldietako partidak alderagarriak eta homogeenak dira.

2.6- Informazioaren erantzukizuna eta egindako zenbatespenak

Urteko kontu hauetan jasotako informazioa sozietatearen administratzaileen erantzukizuna da. Urteko kontu hauetan haietan erregistratuta agertzen diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuk balioesteko egindako zenbatespenak erabili dira. Funtsean, zenbatespen horiek zenbait aktiboren narriadurak eragindako galeren ebaluazioari, aktibo ez korronteen bizi-tza baliagarriari eta hornidurak gertatzeko probabilitateari buruzkoak dira.

Zenbatespen horiek urteko kontuak egiteko datan erabilgarri zegoen informaziorik onenaren arabera egin ziren arren, gerta daiteke etorkizunean gerta litezkeen gertakariak datozen ekitaldietan haiek aldaraztea. Kasu horretan, aurrera begira egingo litzateke, zenbatespen aldaketak galera eta irabazien kontuetan izandako ondorioak onartuz.

2.7- Hutsen zuzenketa

2020ko ekitaldiko urteko kontuetan, aurreko ekitaldietako saldoen erregularizazioetatik eratorritako 200.324 euroko doikuntzak jaso dira.

2.8- Funtzionamenduan dagoen enpresa printzipioa

Sozietateak galerak izan ditu aurreko ekitaldietan, 2014an eta 2019an izan ezik, bereziki hasieran aurreikusitakoa baino trafikoko gutxiago ibili delako autobidean. 2020ko ekitaldian, sozietateak 2.081.586 euroko galerak izan zituen (610.855 euroko irabaziak 2019an). Horrez gainera, 2020ko abenduaren 31n, maniobra funtsak 5.767.528 euroko zenbateko negatiboa zuen (6.943.093 eurokoa 2019an).

Sozietatearen administratzaileek, urteko kontu hauek egiteko, funtzionamenduan dagoen enpresa printzipioari jarraitu diote, oinarri hartuz akziodun bakarrarengandik jasotako finantza laguntza, jardueraren hobekuntza etengabea eta 9. oharrean azaldutako zorra birfinantzatzeko akordioak.

3. oharra: EMAITZEN BANAKETA

Honako hauek dira administratzaileek 2020ko eta 2019ko ekitaldietako emaitza banatzeko egindako proposamenak, eurotan:

	2020	2019
<u>BANAKETA OINARRIA</u>		
▪ Ekitaldian izandako etekina (galera)	(2.081.586)	610.855
<u>BANAKETA</u>		
▪ Legezko erreserba	-	61.086
▪ Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(2.081.586)	549.769

4. oharra: ERREGISTRO ETA BALIOESPEN ARAUAK

Sozietateak 2020ko ekitaldirako urteko kontuak egitean baloratzeko arau jakin batzuk erabili ditu, Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritakoekin bat etorritz. Hona hemen erabilitako arauak:

4.1- Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezinean bildutako ondasunak euren kostuagatik baloratuko dira, izan hura eskuraketa prezioa nahiz ekoizpen kostua, dagokion amortizazio metatua kenduta, eta, kasuan kasu, izan dituzten narriaduragatiko galerak ere kenduta.

Ibilgetu ukiezinak bizitza baliagarri definituko aktiboak dira, eta, beraz, sistematikoki amortizatu behar dira, aktiboari datxezkion onura ekonomikoek enpresari etekinak ekarriko dizkiotela pentsatzeko arrazoiak dauden denboraldian.

Aktibo horien bizitza baliagarria ezin denean modu fidagarrian balioetsi, hamar urteko epean amortizatuko dira, ibilgetu ukiezinari buruzko arau partikularretan ezarritako epeei kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, ibilgetuen balioa narriatu izanaren zantzurik ote dagoen aztertu beharko da gutxienez urtero, gerta daitezkeen narriadurak egiaztatzeko.

a) **Aplikazio informatikoak**

Hirugarrenei eskuratutako informatika aplikazioetarako lizentziak kapitalizatzeko oinarria haiek eskuratzeko izandako kostuak dira.

Programa informatikoak garatzeko izandako gastuak berariaz banakatzen dituzte proiektuek eta haien kostua argi ezarrita dago denboran banatu ahal izateko. Halaber, Sozietatearen zuzendaritzak haien arrakasta teknikoaren eta ekonomia eta merkataritza errentagarritasunaren zio arazoituak dauzka.

Informatika aplikazioak linealki amortizatzen dira euren bizitza baliagarrian, urtean % 25.

Informatika garapen baten arrakasta teknikoari nahiz ekonomia eta merkataritza errentagarritasunari buruzko arazoizko zalantzak dauden unean, hari dagokion aktiboan erregistratutako zenbatekoak zuzenean egozten zaizkie ekitaldiko galerei.

Informatika aplikazioen mantentze gastuak, ekitaldian izandakoak, galera eta irabazien kontuan erregistratzen dira.

b) Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen emakida duten enpresei egokitzeko arauen pean dauden emakida akordioak

Sozietateak aztertu egiten du, kontratu eta lege ezaugarrien arabera, ea emakida akordioak abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduaren eraginpean dauden. Agindu horren bidez, azpiegitura publikoen emakida duten enpresei Kontabilitate Plan Orokorra egokitzeko arauak onetsi ziren.

Autobideak, tunelak, zubiak eta ordainpeko bestelako bideak eraikitzeke inbertsioa honakoek osatzen dute besteak beste: azterlan teknikoak eta ekonomikoak, proiektuak, desjabetzeak, kalte ordainak eta zerbitzuen eta bide zorren birjartzea, obra eta instalazioen eraikuntza, obren zuzendaritza eta administrazio gastuak, autobidea eraikitzeke denboraldian sortutako finantza gastuak eta ordainpeko bideak funtzionatzen hasi arteko gastu orokorrak eta administrazio gastuak.

Erabiltzeko urtebete baino gehiagoko epea behar duten emakida akordio bidezko obren erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren barruan, funtzionatzen hasi aurretik sortutako finantza gastuak sartu dira, gastu horiek zuzenean egotzi ahal bazaizkio erosketari edo eraikitzeari, sartzen diren ibilgetuaren arrazoizko balioa muga dutela.

Zabaltzeko, modernizatzeko edo hobetzeko gastuek ekoizpena, gaitasuna edo eraginkortasuna handitzen badute edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatzen badute; gastu horiek dagokien ondasunen gastu handiago gisa kontabilizatzen dira, ordezkatu direlako baja emandako elementuen kontabilitateko balioa ezarri ahal bada.

Konponketa garrantzitsuen gastu hauek aktibatu eta amortizatu egiten dira zenbatetsitako bizitza erabilgarriko aldiaren; zaintzeko eta mantentzeko gastuak, aldiz, gastuak egiten diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuan kargatzen dira.

Uneko ibilgetuak ekitaldiaren itxieran eraikitze aldiaren dauden (eta beraz, funtzionamenduan ez dauden) aktiboak jasotzen ditu.

Autobideetan, tuneletan eta ordainpeko beste bide batzuetan egindako inbertsioen osagai diren elementuak, beren bizitza erabilgarria kontzesioaren 35 urteko aldia baino gehiagokoa bada, kontzesio aldi horretarako aurreikusitako trafikoaren arabera amortizatzen dira.

Bizitza baliagarri finitua duten gainerako ibilgetu ukiezinen amortizazioa egiteko, amortiza daitekeen zenbatekoa modu sistematikoan banatzen da haien bizitza baliagarrian zehar, irizpide hauek aplikatuz:

Kontzeptua	Amortizazio metodoa	Aurreikusitako balio bizitza
Inbertsioak autobideetan, tuneletan, zubietan eta bidesaria duten beste bide batzuetan	Lineala	14-25

Sozietateak kontratuz bere gain hartutako betebeharrak, hots, ustiapen aldian azpiegitura mantendu beharra edota kontzesio akordioaren indarraldia amaitutakoan lagatzaileari itzuli aurretik azpiegitura lehengoratu beharra, diru sarreraren iturri ez diren heinean, h) letrako horniduren kontabilitate politikari jarraituz aitortzen dira.

Ildo beretik, mantentze obrak gastu gisa aitortzen dira horrelako gastuak egin ahala. Birjartze jarduketek, konponketa handiek eta azpiegitura itzultzeko egin beharreko jarduketek eurekin dakarte hornidurarako zuzkidura bat aitortzea modu sistematikoan. Hala ere, betebeharrak hori desmuntatze betebeharrak batekin pareka daitekeen heinean, halakotzat aitortzen da.

Hobekuntzarako edo edukiera handitzeko jarduketak emakida berritza hartu behar dira. Hala ere, baldin eta, akordioaren baldintzak ikusirik, sozietateak uste badu jarduketa horiek ez direla konpentsatuko egiten diren egunetik aurrera diru sarrera handiagoak lortzeko aukerarekin, orduan hornidura bat onartuko da desmuntatzeagatik edo kentzeagatik, egiten diren egunetik aurrera diru sarrera handiagoak lortzeko aukerarekin konpentsatzen ez diren jarduketei lotutako betebeharrak kitatzeko egin beharreko ordainketaren egungo balioaren zenbatespen hobe dela eta. Kontrapartida gisa, ibilgetu ukiezinen erosketak prezioa handiagoa da. Jarduketak egiten direnean, hornidura ezeztatzen da eta dagokion diru sarrera aitortzen da, baldin eta sozietateak eraikuntza zerbitzua ematen badu. Etorkizuneko diru sarrera handiagoen bitartez ustez berreskuratuko den hobekuntzaren edo edukiera handitzearen zati proportzionalaren

kontabilitate tratamendua eraikuntzako jardueretarako deskribatutako tratamendu orokorra izango da.

c) **Emakida akordioa, finantza aktibazioa**

Eraikuntza edo hobekuntza zerbitzuen ordainak berekin badakar ibilgetu ukiezin bat aitortzea, azpiegitura ustiatzeko moduan dagoen unetik aurrera, sozietateak kapitalizatu egiten du sortutako finantza gastuak, baldin eta:

- Banan identifikatu eta fidagarritasunez neurtu badaitezke.

Etorkizuneko diru sarrerek aktibatutako zenbatekoa berreskuratzea ahalbidetuko dutela uste izateko zentzuzko arrazoiak badaude.

Ildo horretan, sozietateak etorkizuneko ekitaldietako tarifetan aipatutako gastuak berreskuratuko direla uste izateko zentzuzko arrazoiak izango ditu baldin eta, Ekonomia eta Finantza Planean jasota egoteaz gainera, hurrengo bi baldintzak betetzen badira:

- a) Aukera izatea gastu hauek tarifaren zehaztapenaren ondorioetarako onartutako kostu gisa sartuz aktibatutako finantza gastuak adinako diru sarrerak lortzeko etorkizunean, gutxienez ere.
- b) Ziur jakitea etorkizuneko diru sarrerek aldeztatik izan diren kostuak berreskuratzea ahalbidetuko dutela.

Ibilgetu ukiezonean sartu beharreko finantza gastuen zenbatekoa zehazteari dagokionez, Ekonomia eta Finantza Planeko magnitudeetatik abiatuta, honako zenbateko hauek zehazten dira:

- Kontzesioaren iraunaldirako aurreikusten diren diru sarrerak, guztira, eta ekitaldi bakoitzari dagozkionak.
- Kontzesioaren iraunaldirako aurreikusten diren finantza gastuak, guztira, eta ekitaldi bakoitzari dagozkionak.

Aurreikusitako diru sarrerei dagokienez, ekitaldi bakoitzeko ustiapeneko diru sarrerek guztizkoen aldean zer proportzio egiten duten zehazten da. Proportzio hori kontzesioaldian

zegar aurreikusitako finantza gastuen guztirako zenbatekoari aplikatzen zaio, ekonomia ekitaldi bakoitzari ekitaldiko finantza gastu moduan egotzi beharreko horien zenbatekoa zehazteko. Ekitaldi baten izandako diru sarrera aurreikusitakoa baino handiagoa bada, aipatutako ehuneko hori ekitaldi horretarako izango da benetako diru sarreraren eta aurreikusitako diru sarrera guztien arteko harremana. Horrek, gehienetan, azken ekitaldiari dagokion egozpenean doiketak dakartza.

4.2- Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala balioesteko dagokion amortizazio metatuaren eskuraketa prezio garbia eta, kasuan kasu, narriaduragatik onartutako balorazioen zuzenketen zenbateko metatua erabiltzen dira.

Ekitaldian izandako kontserbazio eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira. Ibilgetu materialeko ondasunak berritu, handitu edo hobetzeko kostuak, ahalmena edo produktibitatea handitzea nahiz bizitza baliagarria luzatzea dakartenak, ondasun horien balio handiago gisa kapitalizatzen dira, ordeztu diren elementuen kontabilitate balioei baja eman ondoren.

Ibilgetu materiala, garbia haren hondar balioaren kasuan, amortizatzeko, ibilgetu hori osatzen duten elementuen kostua linealki banatzen da sozietateak erabiltzea espero duen epeari dagozkion bizitza erabilgarri zenbatetsiaren urteen artean, koadro honen arabera:

Kontzeptua	Urteko ehunekoa	Aurreikusitako balio bizitza
Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	20	5
Bestelako ibilgetu materiala	25	4

Sozietateak alokatutako lokaletan egindako inbertsioak, alokatutako aktibotik bereiz daitezkeenak, euren bizitza baliagarriaren arabera amortizatzen dira. Bizitza baliagarri hori txikiena da, alokairu kontratuaren iraupenaren (berritzeko epea barne hura gertatuko dela adierazten duten ebidentziak daudenean) eta aktiboaren bizitza ekonomikoaren artean.

Ibilgetu materialaren elementu baten liburu-tako zenbatekoari kontuetan baja ematen zaio hura besterentzeagatik edo beste bide batez erabiltzeagatik; edo etorkizunean hura erabili, besterendu edo beste bideren batez erabiltzeagatik etekinik edo errendimendu ekonomikorik eskuratzetik espero ez denean.

Ekitaldia ixtean, ibilgetu materialaren elementu baten edo eskudirua sortzen duen unitateren baten balioa narriatu izanaren zantzurik dagoen ebaluatzen du sozietateak eta, hala bada, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatetsi eta behar diren balioak zuzentzen dira.

Kontabilitate balioa balio berreskuragarria baino handiagoa bada, ibilgetu materialaren elementu balioaren narriaduragatik galera egon dela ulertzen da. Balio berreskuragarria da haren arrazoizko balioari salmenta kostuak eta erabilpen balioa kendutakoan ematen duen kopuru handiena.

Ibilgetu materialaren narriadurak eragindako balioen zuzenketak, nahiz haien berrikuspena haiek eragin zituzten inguruabarrak desagertzen direnean, gastu edo sarrera gisa onartzen dira, hurrenez hurren, galera eta irabazien kontuan.

4.3- Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk

Ekitaldian izandako errentamendu operatiboen gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira.

4.4- Finantza tresnak

Hasierako onarpenaren unean ezartzen du bere finantza aktiboen sailkapena sozietateak eta, baimenduta dagoenean eta egokia denean, sailkapen hori berrebaluatzen da balantzearen itxiera bakoitzean.

Sozietateak erabilitako finantza tresnak, euren baloraziorako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

- a) Kobratu behar diren maileguak eta partidak eta ordaindu behar diren zordunketak eta partidak.
- b) Negoziatzeko mantentzen diren finantza aktiboak.

a) **Kobratu beharreko maileguak eta partidak**

Hauek sailkatzen dira kategoria honetan:

- Merkataritza eragiketen ondoriozko kredituak: ondasunak saltzeagatik eta trafiko eragiketengatik zerbitzuak emateagatik sortutako finantza aktiboak, eta
- Merkataritza besteko eragiketen ondoriozko kredituak: ondare tresnak edo eratorriak izan gabe, merkataritza jatorririk ez duten finantza aktiboak, zenbateko zehatz edo zehazgarriko kobrantza dutenak, eta merkatu aktibo batean negoziatzen ez direnak. Ez dira sartzen finantza aktiboak, zeinetarako sozietateak ezin baitu hasierako inbertsio osoa nabarmen berreskuratu, kredituaren narriadura ez diren inguruabarrengatik. Salmentarako erabilgarri gisa sailkatzen dira azken horiek.

Negoziatzeko mantentzen diren finantza aktiboak

Epe laburrean saltzeko asmoz eskuratutakoak nahiz epe laburrean irabaziak eskuratzeko helburuz batera kudeatutako finantza tresnen zorro bat osatzen dutenak dira.

Negoziatzeko edukitzen diren finantza aktiboak, hasieran euren arrazoizko balioan baloratzen dira, hots, eskualdaketa prezioan, eta emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren parekoa da hori. Zuzenean egozten zaizkion eskualdaketa kostuak ekitaldiko galera-irabazien kontuan aitortzen dira.

Ondorengo balorazioetan, euren arrazoizko balioetatik baloratzen dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Ekitaldiko galera-irabazien kontuari egozten zaizkio arrazoizko balioan egiten diren aldaketak.

Birsailkapena finantza aktiboetan

Hasieran negoziatzeko edukitakoen edo galera-irabazien kontuko aldaketak dauzkaten arrazoizko balioak kategorian sartutako finantza aktiboak ezin dira beste kategorietara birsailkatu, ezta azkenak haietara, aktiboa taldeko enpresen, taldeaniztunen edo kidetutakoen ondareko inbertsio kalifikatu behar denean izan ezik.

Halaber, Kontabilitate Plan Orokorrean xedatutakoaren arabera, sozietateak ezingo du beste aktiborik sailkatu epemugara arte edukitako inbertsio gisa epemugara arte edukitako inbertsioetat hartutako aktiboak salmentarako erabilgarri diren aktiboetara birsailkatu eta ekitaldi oso bi igaro arte.

Une batean epemugara arte edukitako inbertsioetatik salmentarako edukitako aktiboetara birsailkatu ziren aktiboak, kategoria horretan irauteko legezko epea igarotakoan berriz epemugara arte edukitako inbertsio gisa sailkatu direnak; bihurtuta hori egiteko unean euren kontabilitate balioan balioetsiko dira, eta hura izango da aurrerantzean data horretara amortizatutako kostua. Aktibo horretatik datorren galera edo irabazi oro, lehenago ondare garbian zuzenean aitortu bada, bertan geratuko da eta galera-irabazien kontuan aitortuko da epemugara arte edukitako inbertsioaren hondar bizitzan, benetako interes tasaren metodoa erabiliz.

Finantza aktiboaren baja

Finantza aktibo bati, edo haren zati bati, baja ematen zaio finantza aktiboaren eskudiru fluxuen gaineko kontratuzko eskubideak iraungitzen edo lagatzen direnean, eta haren jabetzari datxezkion arriskuak eta etekinak nabarmen eskualdatu direnean.

Ordaindu beharreko partidak eta zorrak

Hauek sailkatzen dira kategoria honetan:

- Merkataritzako eragiketen ondoriozko zorrak: ondasunak eta trafiko eragiketengatiko zerbitzuak erosteak sortutako finantza pasiboak.
- Merkataritzaz besteko eragiketen ondoriozko zorrak: tresna eratorriak izanik, merkataritza jatorririk ez daukaten finantza pasiboak.

Hasieran, kategoria horretan sartutako finantza aktibo eta pasiboak euren arrazoizko balioan baloratzen dira; alegia, transakzioaren prezioan: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotzi behar zaizkion transakzio kostuak.

Hala eta guztiz ere, balio nominalean baloratzen dira honako hauek, eskudiru fluxuak eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez bada: urtetik gorako epemuga ez duten eta kontratuzko interes tasarik ez daukaten merkataritza eragiketengatiko kredituak eta zordunketak nahiz, kasuan kasu, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare tresnen gainean eskatutako ordainketak, haien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak, haien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero bada.

Ondorengo balorazioetan, aktiboak nahiz pasiboak euren kostu amortizatuan baloratuko dira. Sortutako interesak galera-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, benetako interes tasaren metodoa aplikatuz. Nolanahi ere, urtebetetik gorako epemuga ez duten kredituak eta zordunketak, hasieran euren balio nominalean baloratzen direnak, zenbateko horretan baloratzen dira gero ere, narriatutako kredituen kasuan izan ezik.

Ekitaldia ixtean, behar diren balioak zuzentzen dira, kreditu baten balioa narriatu izanaren ebidentzia objektiboa badago, hots, aktibo horri dagozkion etorkizuneko eskudiru fluxu zenbatetsietan murrizketa edo atzerapen baten ebidentzia badago.

Finantza pasiboen baja

Dagokion betebeharra iraungitzen denean ematen zaio baha finantza pasibo bati.

Finantza aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak

Eskuraketaren unearen ondoren sortutako finantza aktiboen interesak eta dibidenduak sarrera gisa aitortzen dira galera-irabazien kontuan.

Aitzitik, jasotako dibidenduak zalantzarik gabe eskuraketa dataren aurretik sortutako emaitzetatik datozenean inbertsioaren kontabilitate balioa gutxiagotuz erregistratzen dira.

Interesak benetako interes tasaren metodoa erabiliz aitortzen dira eta dibidenduak bazkidearen hura jasotzeko eskubidea aitortzen denean. Horretarako, finantza aktiboen hasierako balorazioan independenteki erregistratzen dira, kontuan hartuta euren epemuga, sortutako eta une horretan iraungi gabeko interes esplizituen zenbatekoa eta organo eskudunak eskuraketaren unean erabakitako dibidenduen zenbatekoa.

Emandako fidantzak

Aurreratutako ordainketa gisa erregistratzen dira honako hauek: errentamendu operatiboengatik eta zerbitzugintzengatik emandako fidantzak, euren arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea eta errentamenduagatik edo zerbitzugintzagatik ordaindutako zenbatekoa. Epe laburrean emandako fidantzak ordaindutako zenbatekoan baloratzen dira.

Errentamendu operatiboengatik emandako fidantzak euren arrazoizko balioan balioesten dira.

4.5- Kontabilitate estaldurak

Kontabilitate estaldurak dira hasierako unean hala izendatu direnak, haien estaldura erlazioaren dokumentazioa badago eta eraginkortasun handikotzat jotzen badira.

Estaldura eraginkortasun handikotzat jotzen da, hasieran eta haren bizitzan, aurrera begira, arrazoizko balioan edo estaldutako partidaren eskudiru fluxuetan, estaldutako arriskuari egotz dakizkiokeenetan, egondako aldaketak arrazoizko balioan edo estaldura tresnaren eskudiru fluxuetan egondako aldaketek ia osorik konpentsatzea eta, atzera begira, estalduraren emaitzak estaldutako partidaren emaitzaren aldean ehuneko laurogei eta hogeita bost bitarteko aldakuntza tarte baten barruan mugitzea espero badaiteke.

Haiek erregistratu eta baloratzeko, estaldura eragiketak kategoria hauetan sailkatzen dira:

a) Arrazoizko balioaren estaldura

Onartutako aktibo edo pasiboen edo oraindik onartu gabeko konpromiso irmoen, edo haien zati jakin baten arrazoizko balioko aldaketetarako arriskuaren gaineko estaldurei dagokie. Estaldura tresnaren eta estalitako partidaren balio aldaketak, estaldutako arriskuari egotz dakizkiokeenak, galera-irabazien kontuan aitortzen dira.

b) Eskudiru mugimenduen estaldura

Onartutako aktibo edo pasiboari edo probabilitate handia duen aurreikusitako transakzioari lotutako arrisku jakin bati egozten zaion eskudiru fluxuen aldakuntzarako arriskuaren gaineko estaldurei dagokie, galera-irabazien kontuei eragin ahal badio.

Konpromiso irmo baten kanbio tasaren arriskuaren estaldura eskudiru fluxuen estaldura gisa kontabiliza daiteke. Estaldura tresnaren irabazi edo galera zatia, estaldura eraginkor gisa zehaztu dena, aldi baterako aitortzen da ondare garbian eta galera-irabazien kontuari egozten zaio aurreikusitako eragiketa estaliak emaitzari eragiten dion ekitaldian edo ekitaldietan, estaldura finantzaz besteko aktibo edo pasibo baten onarpenean amaitzen den aurreikusitako transakzio bati egokitu ezean; kasu horretan, ondare garbian erregistratutako zenbatekoak aktibo edo pasiboaren kostuan sartuko dira eskuratzen edo onartzen denean.

c) **Atzerriko negozioetan egindako inbertsio garbiaren estaldura**

Kanbio tasaren arriskuaren gaineko estaldurak dira, mendeko edo kidetutako sozietateetako, baterako negozio eta sukurtsaletako inbertsioetan, haien jarduerak euroa ez den moneta funtzional batean oinarritzen edo gauzatzen direnean.

Nortasun juridiko independenterik ez duten baterako negozioetako eta atzerriko sukurtsaletako inbertsio garbien estaldura eragiketetan, estalitako arriskuari egotz dakizkiokeen estaldura tresnen balio aldaketak aldi baterako aitortzen dira ondare garbian, eta galera-irabazien kontuari egotzen zaizkio atzerriko negozioko inbertsio garbiaren besterentzea edo beste bide bateko erabiltzea gertatzen den ekitaldian edo ekitaldietan.

Mendeko sozietate, sozietate taldeaniztun edo kidetutakoetako atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura eragiketak kanbio tasaren osagaiagatiko arrazoizko balioko estaldura gisa tratatzen dira.

4.6- Mozkinen gaineko zerga

Arabako Biltzar Nagusiek, 2004ko maiatzaren 10eko osoko bilkuran, 7/2004 Foru Araua onetsi zuten, Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua aldatu zuena besteak beste. Aldaketa hori dela eta, Arabako Bideak SA salbuetsita geratzen da sozietateen gaineko zergan. Salbuespen horrek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako izango ditu ondorioak.

4.7- Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, sarreren eta gastuen ondasun eta zerbitzuetako korronte erreala ematen denean. Sarrera eta gastuen ondoriozko diru korronteak edo finantza korronteak gertatzen den uneak ez du eraginik izango

Ondasunen salmentatik eta zerbitzuak ematetik datozen diru sarrerak haietatik datorren jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioan baloratzen dira eta, kontrako ebidentziarik ezean, ondasun edo zerbitzu horietarako adostutako prezioa da, hauek kenduta: prezioan edo sozietateak eman ditzakeen antzeko beste partidetan egindako deskontu edo beherapen ororen zenbatekoa, eta kredituen nominalari erantsitako interesak.

4.8- Hornidurak eta kontingentziak

Ekitaldia ixtean dauden betebeharrak, sozietateari ondare kalteak ekar diezaioketen iraganeko gertakarien ondorioz sortutakoak, zenbateko eta kitatzeko une zehaztugabeak dauzkatenak, hornidura gisa erregistratzen dira balantzean eta betebeharra kitatzeko edo hirugarren bati eskualdatzeko behar den zenbatekoaren zenbatespen posiblek onenaren egungo balioan baloratzen dira.

Horniduraren eguneraketatik sortzen diren doikuntzak finantza gastu gisa erregistratzen dira sortu ahala. Urte bat edo gutxiagoko epemuga duten horniduren kasuan, eta finantza ondorioa esanguratsua ez bada, ez da inolako deskonturik egiten.

Halaber, kasuan kasu, hornidurarik ez dakarten kontingentzien berri ematen du sozietateak.

4.9- Ingurumen izaerako ondare elementuak

Ingurumen inpaktua minimizatzeari eta ingurumena babestu eta hobetzeari lotutako gastuak gertatzen diren ekitaldiko galera-irabazien kontuan erregistratzen dira euren izaeraren arabera.

Jarduera horietarako aktiboak ibilgetu materialean dagokien epigrafean sailkatzen dira eta euren eskuraketa prezioan edo ekoizpen kostuan baloratzen dira, dagokien amortizazio

metatuaren eta, kasuan kasu, narriaduragatiko balio zuzenketa onartuengatiko zenbateko metatuaren garbian, hain zuzen ere.

Ingurumen izaerako hornidura bat erregistratzen da legezko, kontratuzko edo beste edozein motatako betebeharrak, nahiz ingurumenari eragindako kalteak prebenitzeko eta konpontzeko hartutako konpromisoak egotearen ondorioz, sozietateak etorkizunean ordainketa bat, ekitaldia ixtean bere zenbatekoan eta/edo kitatzeko aurreikusitako unean zehaztugabea dena, egin behar izatea gertagarria edo segurua bada.

4.10- Lotutako alderdien arteko transakzioak

Oro har, lotutako alderdiekin egindako transakzio bati dagozkion elementuak euren arrazoizko balioan kontabilizatzen dira hasierako unean. Ondorengo balorazioa dagozkion arauetan aurreikusitakoaren arabera egiten da.

4.11- Eskudiru fluxuen egoerak

Eskudiru fluxuen egoeretan adierazpen hauek erabiltzen dira hemen agertzen diren zentzuan:

Eskudirua edo parekoak: eskudiruan bai kutxa bai ageriko banku gordailuak sartzen dira. Eskudiruaren parekoak finantza tresnak dira, sozietatearen diruzaintzaren kudeaketa arruntean sartzen direnak, eskudiru bihur daitezke, haien hasierako epemugak ez dira hiru hilabetetik gorakoak eta balio aldaketetarako garrantzi txikiko arriskua daukate.

Eskudiru fluxuak: eskudiruaren edo pareko beste bitarteko batzuen sarrerak eta irteerak. Hiru hilabetetik beherako eperako inbertsioak dira halakoak, likidezia handia eta balio aldaketetarako arrisku urria dauzkatenak.

Ustiapen jarduerak: sozietatearen diru sarrera arrunten iturri nagusia dira jarduera horiek, baita inbertsio edo finantzaketako gisa kalifikatu ezin diren beste jarduera batzuk ere.

Inbertsio jarduerak: epe luzerako aktiboak beste bitarteko batzuen bidez eskuratu, besterendu eta erabiltzekoak eta eskudiruan eta haren parekoetan sartzen ez diren beste inbertsio batzuk.

Finantzaketa jarduerak: ondare garbiaren eta finantza izaerako pasiboen tamainan eta osaketan aldaketak sortzen dituzten jarduerak.

5. oharra: IBILGETU UKAEZINA

Hauek izan dira 2020ko ekitaldiko ibilgetu ukiezinaren xehetasuna eta mugimendua:

Kontzeptua	Administrazio emakidak	Aplikazio informatikoak	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2019KO EKITALDIA	167.576.080	150.827	167.726.907
2019ko ekitaldiko altak	822.759	-	822.759
2019ko ekitaldiko bajak	-	-	-
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2020ko EKITALDIA	168.398.839	150.827	168.549.666
2020ko ekitaldiko altak	805.511	10.311	815.822
2020ko ekitaldiko bajak	-	-	-
C) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2020KO EKITALDIA	169.204.350	161.138	169.365.488
D) AMORTIZAZIO METATUA, 2019KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	(36.814.050)	(144.970)	(36.959.020)
(+) 2019ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	(4.361.724)	(735)	(4.362.459)
(-) Irteeren, bajen, murrizketen edo intsuldaketen ondoriozko murrizketak	-	-	-
E) AMORTIZAZIO METATUA, 2019KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	(41.175.774)	(145.705)	(41.321.479)
(+) 2020ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	(4.454.602)	(490)	(4.455.092)
(-) Irteeren edo bajen ondoriozko murrizketak	-	-	-
(+/-) Intsuldaketak	8.449	-	8.449
F) AMORTIZAZIO METATUA, 2020KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	(45.621.927)	(146.195)	(45.768.122)
G) KONTABILITATE BALIO GARBIA 2020ko abenduaren 31n	123.582.423	14.943	123.597.366

5.1- Finantza gastu kapitalizatuak

Bestalde, sozietateak 2020ko ekitaldian finantza gastuen 805.511 euro kapitalizatu ditu "Finantza aktibazioa, kontzesio akordio" gisa (aurreko ekitaldian, 822.759 euro), abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduko bigarren arauko 3. apartatuan ezarritakoaren arabera. Agindu horren bidez, eraikuntzaren finantzaketako finantza gastu geroratuak aktibatzen dira, sozietatearen ekonomia eta finantza plana oinarri hartuta etorkizunean horiek berreskuratuko diren ebidentzia baldin badago.

Guztiz amortizatutako eta erabiltzen diren elementuak

Hona hemen 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n guztiz amortizatuta eta erabiltzen zeuden aktiborik esanguratsuenen xehakapena, epigrafeka eta haien kostu balioa, eurotan:

Kontzeptua	2020	2019
Aplikazio informatikoak	144.970	144.393
Guztira	144.970	144.393

6. oharra: IBILGETU MATERIALA

Hauek dira ibilgetu materialaren xehetasuna eta mugimendua 2020ko ekitaldian:

Kontzeptua	Eraikuntzak, instalazio teknikoak eta makineria	Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	Informazioa tratatzeko ekipamenduak	Bestelako ibilgetu materiala	Guztira
A) HASIERAKO SALDO GORDINA, 2019KO EKITALDIA	15.628	103.409	164.874	7.981	291.892
2019ko ekitaldiko altak	-	4.708	9.564	-	14.272
2019ko ekitaldiko bajak	-	-	-	-	-
B) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2019KO EKITALDIA	15.628	108.117	174.438	7.981	306.164
2020ko ekitaldiko altak	8.814	380	-	-	9.194
2020ko ekitaldiko bajak	-	-	(11.117)	-	(11.117)
C) AMAIERAKO SALDO GORDINA, 2020KO EKITALDIA	24.442	108.497	163.321	7.981	304.241
D) AMORTIZAZIO METATUA, 2019KO EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	-	(94.199)	(155.780)	-	(249.979)
(+) 2019ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	-	(3.699)	(340)	-	(4.039)
(-) Irteeren, bajen, murrizketen edo intsuldaketen ondoriozko murrizketak	-	-	-	-	-
E) AMORTIZAZIO METATUA, 2019KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	-	(97.898)	(156.120)	-	(254.018)
(+) 2020ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura	-	(1.187)	(2.194)	-	(3.381)
(-) Irteeren edo bajen ondoriozko murrizketak	-	-	11.117	-	11.117
(+/-) Intsuldaketak	(9.468)	2.753	-	(1.733)	(8.449)
F) AMORTIZAZIO METATUA, 2020KO EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA	(9.468)	(96.332)	(147.197)	(1.733)	(254.731)
G) KONTABILITATE BALIO GARBIA 2020ko abenduaren 31n	14.974	12.165	16.124	6.248	49.510

Guztiz amortizatutako eta erabiltzen diren elementuak

Guztiz amortizatuta eta erabiltzen dauden aktiborik esanguratsuenen banantzea, epigrafeka, erakusten da hemen, haien kostu balioa adieraziz:

Kontzeptua	2020	2019
Instalazio teknikoak	2.753	-
Altzariak	95.576	96.165
Ekipamendu informatikoak	133.636	147.458
Guztira	231.965	243.623

7. oharra: ALOKAIRUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK

7.1- Errentamendu operatiboak (sozietatea errentari)

2020ko ekitaldiko emaitzetara 15.591 euro kargatu dira errentamendu operatiboagatik (aurreko ekitaldian, 15.687).

8. oharra: FINANTZA AKTIBOAK

Hona hemen epe luzerako finantza aktiboen xehetasuna:

Mota	Epe luzea			
	Bestelako kreditu eratorriak		Guztira	
	2020	2019	2020	2019
Kobratu beharreko maileguak eta partidak (8.2 oharra)	7.568	7.973	7.568	7.973
Guztira	7.568	7.973	7.568	7.973

Hona hemen epe laburrerako finantza aktiboen xehetasuna:

Mota	Epe laburra			
	Bestelako kreditu eratorriak		Guztira	
	2020	2019	2020	2019
Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk (8.1.a oharra)	963.266	2.799.998	963.266	2.799.998
Kobratu beharreko maileguak eta partidak (8.2 oharra)	1.356.574	1.472.795	1.356.574	1.472.795
Guztira	2.319.840	4.272.793	2.319.840	4.272.793

8.1- Arrazoizko balioko aktiboak, galera-irabazietan aldaketak sortu dituztenak

8.1.a) Eskudirua eta pareko beste aktibo likido batzuk

Hona hemen aktibo horien xehetasuna 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n:

Kontzeptua	2020ko abenduaren 31ko saldoa	2019ko abenduaren 31ko saldoa
Kontu korronteak	962.814	2.799.805
Kutxa	452	193
Guztira	963.266	2.799.998

Aktibo horien errendimendua eguneroko edo epe laburreko interes tasa aldagarrietan oinarritzen da. Haien likidezia handia dela-eta aktibo horien arrazoizko balioa bat dator haien balio kontabilizatuarekin.

8.2- Kobratu beharreko maileguak eta partidak

Hona hemen epigrafe honen osaera 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n:

	2020ko abenduaren 31ko saldoa		2019ko abenduaren 31ko saldoa	
	Epe luzea	Epe laburra	Epe luzea	Epe laburra
Merkataritzako eragiketen ondoriozko kredituak				
▪ Hirugarren bezeroak	-	1.352.999	-	1.471.016
▪ Hirugarren zordunak	-	3.575	-	1.779
Merkataritzako eragiketen ondoriozko kredituak, guztira	-	1.356.574	-	1.472.795
Merkataritzaz kanpoko eragiketen ondoriozko kredituak				
▪ Bermeak eta gordailuak	7.568	-	7.973	-
Merkataritzaz besteko eragiketen ondoriozko kredituak, guztira	7.568	-	7.973	-
Guztira	7.568	1.356.574	7.973	1.472.795

8.3- Finantza aktiboei buruzko bestelako informazioa

a) Birsailkapenak

2020ko abenduaren 31n eta 2019ko abenduaren 31n, sozietateak ez du finantza-aktiboen birsailkapenik egin.

9. oharra: FINANTZA PASIBOAK

Hona hemen epe luzerako finantza pasiboen xehetasuna:

Mota	Epe luzea					
	Kreditu erakundeekiko zorrak.		Beste finantza pasibo batzuk		Guztira	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Ordaindu beharreko zordunketak eta partidak (9.1 oharra)	78.463.393	83.198.592	4.536	4.140	78.467.929	83.198.592
Guztira	78.463.393	83.198.592	4.536	4.140	83.202.732	83.198.592

Hona hemen epe laburrerako finantza pasiboen xehetasuna:

Mota	Epe laburra					
	Zorrak kreditu erakundeekin		Eratorkiak eta beste batzuk		Guztira	
	2020	2019	2020	2019	2020	2019
Ordaindu beharreko zordunketak eta partidak (9.1.1 oharra)	4.733.497	6.156.079	3.279.591	4.939.855	8.013.088	11.095.934
Guztira	4.733.497	6.156.079	3.279.591	4.939.855	8.013.088	11.095.934

9.1) Ordaindu beharreko partidak eta zordunketak

Hona hemen 2020ko eta 2019ko abenduaren 31ko xehetasuna, eurotan:

	2020ko abenduaren 31ko saldoa		2019ko abenduaren 31ko saldoa	
	Epe luzea	Epe laburra	Epe luzea	Epe laburra
Merkataritza eragiketengatik:				
▪ Hornitzaileak	-	3.834	-	4.888
▪ Hartzekodunak	-	3.275.757	-	4.934.967
Merkataritzako eragiketen ondoriozko saldoak, guztira	-	3.279.591	-	4.939.855
Merkataritzaz besteko eragiketengatik:				
▪ Zorrak kreditu erakundeekin	78.463.393	4.733.497	83.198.592	6.156.079
▪ Fidantzak	4.536	-	4.140	-
Merkataritzaz besteko eragiketen ondoriozko saldoak, guztira	78.467.929	4.733.497	83.202.732	6.156.079
Ordaindu beharreko partidak eta zordunketak, guztira	78.467.929	8.013.088	83.202.732	11.095.934

Zorrak kreditu erakundeekin

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n kreditu erakundeekin zeuden zorren laburpena, eurotan:

Kontzeptua	Epe laburrera	Epe luzera	Guztira
Maileguak	4.733.497	78.463.393	83.196.890
Guztira	4.733.497	78.463.393	83.196.890

Kreditu erakundeekiko epe luzerako zorren epemugak

Hona hemen kreditu erakundeekiko epe luzerako zorren epemugen xehetasuna:

Epemuga	Euroak
2022	6.291.423
2023	6.366.144
2024	6.883.753
2025	7.961.914
2026	9.080.915
Gainerakoa	41.879.244
Guztira	78.463.393

Sozietateak abenduaren 31n honako mailegu hauek ditu:

Kontzeptua	2020ko abenduaren 31ko saldoa		2019ko abenduaren 31ko saldoa	
	Erabilia	Muga	Erabilia	Muga
Kreditu sindikatua, A tartea	44.403.028	66.500.000	47.402.103	66.500.000
Mendeko kreditua	12.000.000	12.000.000	12.000.000	12.000.000
Mendeko kreditua	9.636.000	9.636.000	9.636.000	9.636.000
Kreditu sindikatua, eraikuntza	17.157.862	27.964.568	20.316.568	27.964.568
Guztira	83.196.890	116.100.568	89.354.671	116.100.568

2004ko abenduaren 22an, Arabako Bideak SA sozietateak epe luzeko kreditu sindikatua hitzartu zuen, gehienez ere 74.500.000 eurokoa.

Kredituaren zenbateko osoa bi tartetan banatzen da: A eta B tartekak. A tarteari dagokion zatia (66.500.000 euros) proiektuaren inbertsio osoaren aurrekontua zati batean finantzatzeko da, eta horren epemuga 2031ko ekainaren 30a da.

Hona hemen mailegu horiei dagokien interes tasa:

Tartea	Interes aldia	Marjina
A tartea	1. erabileratik 2013/12/31ra arte	% 1,55
	2014/01/01etik 2019/12/31ra arte	% 1.65
	2020/01/01etik azken mugaegunera arte	% 1.80

Interes tasak euriborra gehi marjina izango dira.

Maileguaren B tartea, 8 milioi eurokoa, ez zen erabili.

Era berean, 2004ko abenduaren 22an eraikuntzarako kreditu kontratu sindikatua sinatu zen, bonuen bidez mugigarria. Zenbatekoa, gehienez 24.000.000 euro, Proiektuaren inbertsio osoaren aurrekontua zati batean finantzatzeko da (BEZa aparte).

Mailegu horren epemuga autobidea abian jarri ondoko hiru hilan arteko lehen data da edo 2010eko urtarrilaren 1a. Mailegu horri dagokion interes tasa honako hau da: euriborra gehi % 1,55.

Eraikuntza lanak egiteko kontratu kreditu honi dagokionez, azken mugaegunean, erakunde kreditu emaileek kredituaren zenbatekoa berriro finantzatzeko konpromisoa hartzen dute bere gain, bonu jaulkipen baten edo gehiagoren bidez. Horiez baliatuta, eraikuntza lanak egiteko kreditu kontua amortizatuko da azken mugaegunean. Bonu jaulkipenen ezaugarriak honako hauek ziren:

Jaulkipena	Urtea	Mota	Zenbatekoa (eurotan)	Bonuaren epea	Marjina
Lehenengoa	2009	Zero kupoia	24.000.000	10 urte	% 1,50
Bigarrena	2018	Urteko kupoia	24.000.000 + 1. jaulkipeneko interesak	10 urte	% 1,25
Hirugarrena	2028	Urteko kupoia	24.000.000 + 1. jaulkipeneko interesak	4 urte	% 1,25

Azkenean jaulkipen horiek ez ziren gauzatu, Autobidearen eraikuntzan izandako atzerapenengatik. Halaber, 2009ko abenduaren 16an, eraikuntzako kreditu sindikatuko kontratu berri bat sinatu zen, 24.000.000 eurokoa, eta hori erabili da eraikuntza kontratuaren babesean emandako aurreko kreditua erabat amortizatzeko eta baliogabetzeko.

2017ko martxoaren 30ean sozietatearen administratzaileek akordio bat lortu zuten finantza erakundeekin eraikuntzako kreditua birfinantzatzeko, 27.964.568 eurotan. Haren azken epemuga 2029ko abenduaren 30a da eta amortizazio egutegi normalizatu berria adostu da. Aplikatuko den interes tasa euriborra gehi % 1,5 izango da 2018ko apirilaren 6ra arte, % 1,65ekoa 2019ko abenduaren 31ra arte eta % 1,80koa amaierako epemugaraino.

Era berean, 2008ko apirilaren 23an eta 2010eko abenduaren 28an sozietateak bi mendeko maileguren kontratuak sinatu zituen; bata, 12.000.000 eurokoa eta bestea, 9.636.000 eurokoa, proiektuko gaingastuak zati batean finantzatzeko eta A tarteko epe luzeko kredituen interesak ordaintzeko eta eraikuntzako kredituko kontratuaren interesak ordaintzeko, osoa xedatu ondoren. Lehenengoaren interes tasa euriborra+0,85 da eta 2032ko irailaren 30ean amaituko da. Bigarrenaren interes tasa euriborra+1,70 da eta 2033ko abenduaren 28an amaituko da.

Kreditu horien kontratuzko klausuletan hitzartutakoaren arabera, 2010etik aurrera sozietateak jarraian zehazten diren finantza ratioak mantendu beharko ditu, urte bakoitzeko abenduaren 31n ikuskatutako kontuak oinarri hartuta kalkulatu ondoren. Zorraren Zerbitzuaren gaineko Estaldura Ratioa eta Proiektuko Zorraren gaineko Funts Propioen Ratioa. Aurrez aipaturiko ratioak betetzen ez badira, sozietateak dagozkion ekintzak egin beharko ditu kontratuan xedatutakora egokitu daitezen; horretarako, urte bakoitzeko ekainaren hogeita hamarrean hasi eta hogeita hamar eguneko epea egongo da, kontratuaren edukiko hitzez hitzeko irakurketatik ondorioztatzen denez.

Sozietateak 2004an interes estalduraren eta inflazio estalduraren kontratuak kontratatu zituen, maileguen erabilera eta amortizazio aldietarako eta autobidearen ustiapen eperako.

Gainera, 2004ko ekitaldian sozietateak honako hauetatik eratorritako kreditu eskubideen pignorazio kontratuak sinatu zituen:

- Jasandako BEZa itzultzeko eskaerak.
- BEZ kontua.
- Estaldura kontratuak.
- Proiektuko kontratuak.
- Proiektuko kontuak.

2009ko ekitaldian, aurreko bermeak berresteko kontratua sinatu zuen sozietateak.

Halaber, 2017an, Zorraren Zerbitzuaren Erreserba Kontuaren hornidura sistema aldatzea erabaki zen, haren saldoa hura baino hamar egun baliodun lehenagoko hurrengo ordainketa datako zorraren zerbitzua izateko.

Era berean, 2017an, une horretara arte zeuden estaldura kontratuak azkentzea erabaki zen.

10. oharra: HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA GERORATZEEI BURUZKO INFORMAZIOA. UZTAILAREN 5EKO 15/2010 LEGEAREN HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA, “INFORMATZEKO BETEBEHARRA”.

Merkataritzako eragiketen berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 1/2010 Legea aldatzen duen abenduaren 3ko 31/2014 Legearen azken xedapenetan bigarreanean (“Informatzeko betebeharra”) adierazitakoaren arabera, hau jakinarazten da:

	2020ko ekitaldia	2019ko ekitaldia
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	39,28	29,16
Ordaindutako eragiketen ratioa	39,57	29,12
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	15,96	59,09
	Zenbatekoa (eurotan)	Zenbatekoa (eurotan)
Egindako ordainketak, guztira	22.879.249	31.392.074
Ordaintzeke daudenak, guztira	291.896	29.239

11. oharra: FINANTZA TRESNETATIK DATORREN ARRISKUAREN IZAERA ETA MAILARI BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietatearen jarduerak zenbait finantza arrisku mota dauzkate; funtsean, kreditu, likidezia eta merkatuko arriskuak nabarmentzen dira (kanbio tasa, interes tasa, eta prezioaren beste arrisku batzuk).

11.1- Kreditu arriskua

Sozietatearen finantza aktibo nagusiak kutxa eta eskudiruko saldoak, merkataritza zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk, eta inbertsioak dira, eta sozietateak daukan kreditu arriskurik handiena dira, finantza aktiboei dagokienez.

Sozietatearen kreditu arriskua batez ere haren merkataritza zorrei egotz dakioke. Zenbatekoak kaudimengabeziarako horniduren balantze garbian islatzen dira. Sozietatearen zuzendaritzak zenbatesten ditu kaudimengabezia horiek aurreko ekitaldietako esperientziaren eta egungo ingurune ekonomikoaren balorazioaren arabera.

Sozietateak ez dauka kreditu arriskuaren metaketa esanguratsutik, eta arriskua kontrako alderdi eta bezero kopuru handi baten aurrean dago banatuta.

11.2- Likidezia arriskua

Sozietateak ez dauka likidezia arrisku esanguratsutik; izan ere, eskudiru eta kreditu erabilgarritasun nahikoak dauzka bere ohiko eragiketetan behar diren irteerei aurre egiteko. Unean-unean finantzaketa behar izanez gero, mailegu eta kreditu polizetara jotzen du sozietateak.

11.3- Merkatuko arriskuak

Arrisku hori minimizatzeko lan egiten ari da, produktuak eta merkatuak dibertsifikazituz.

11.4- Kanbio tasaren arriskua

Sozietatek ez dauka kanbio tasaren arrisku esanguratsurik eta, beraz, ez du eragiketarik egiten estaldurako finantza tresnekin.

11.5- Interes tasaren arriskua

Interes tasen aldaketek interes tasa finkoa sortzen duten aktibo eta pasiboen arrazoizko balioa eta interes tasa aldagarri batera erreferentziatutako aktibo eta pasiboen etorkizuneko fluxuak aldatzen dituzte.

Interes tasen arriskuaren kudeaketaren helburua zorraren egituran urte anitzeko etorkizunean zorraren kostua minimizatzea ahalbidetzen duen oreka bat erdiestea da, galera-irabazien

kontuan hegakortasun urria izanik.

Sozietateak kontratatutako zorraren erreferentziazko interes tasak Euriborra eta Liborra dira.

12. oharra: FUNTS PROPIOAK

12.1- Sozietatearen kapitala

2019ko azaroaren 5ean, Akziodunen Aparteko Batzar Orokorrak onetsi zuen kapitala 1.500.000 eurotan gehitzea, 100na euroko balio izendatua duten 15.000 akzio izendun harpidetuz.

Kapital gehikuntza horren ondoren, harpidetutako eta osorik ordaindutako kapital berria 536.320 akzio arrunt eta izendunek ordezkutzen dute, 1.etik 536.320ra arte, biak barne, eta kapital sozial berria 53.632.000 euro da (52.132.000 euro aurreko ekitaldian).

2020ko abenduaren 31n sozietatearen kapital sozialean 576.320 akzio izendun zeuden (aurreko ekitaldian, 536.320), eta bakoitzak 100 euroko balio izendatua zuen, aurreko ekitaldian bezala. Akzio horiek eskubide politiko eta ekonomiko berak dituzte. Sozietatearen kapitalaren % 100 Arabako Foru Aldundiak harpidetzen eta ordaintzen du eta bera da akziodun bakarra.

2020ko ekainaren 23an, Akziodunen Aparteko Batzar Orokorrak onetsi zuen kapitala 1.500.000 eurotan gehitzea, 100na euroko balio izendatua duten 15.000 akzio izendun harpidetuz.

2020ko abenduaren 15ean, Akziodunen Aparteko Batzar Orokorrak onetsi zuen kapitala 2.500.000 eurotan gehitzea, 100na euroko balio izendatua duten 25.000 akzio izendun harpidetuz.

Kapital gehikuntza horien ondoren, harpidetutako eta osorik ordaindutako kapital berria 576.320 akzio arrunt eta izendunek ordezkutzen dute, 1.etik 576.320era arte, biak barne, eta kapital sozial berria 57.632.000 euro da (53.632.000 euro aurreko ekitaldian).

12.2- Erreserbak

Erreserbak honela banatzen dira:

Kontzeptua	2020	2019
Legezko erreserba	1.055.394	994.308
Borondatezko erreserbak	5.963.181	5.762.857
Guztira	7.018.575	6.757.165

a) **Legezko erreserba**

Legezko erreserbaren erabilera murriztua da, eta legezko zenbait xedapenek xedatzen dute. Kapital sozietateen legearen arabera, merkataritza sozietateek, forma juridiko horren pean, mozkinak lortzen badituzte, mozkin horien % 10 jarri behar dute erreserba horretan, eraturako erreserba funtsa harpidetutako kapital sozialaren bostenera iritsi arte. Legezko erreserbaren xedea galerak konpentsatzea da, edo kapitala gehitzea, gehitutako kapitalaren % 10 gaintitzen duen zatian, baita akziodunei banatzea ere, likidazioa eginez gero. 2020ko abenduaren 31n, legezko erreserba ez zegoen guztiz hornituta.

13. oharra: ZERGA EGOERA

Hona hemen 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n administrazio publikoekin zeuden saldoen xehetasuna, eurotan:

Kontzeptua	31/12/2020		31/12/2019	
	Kobratu beharrekoa	Ordaindu beharrekoa	Kobratu beharrekoa	Ordaindu beharrekoa
Korrontea:				
▪ Balio erantsiaren gaineko zerga	-	64.694	-	108.860
▪ PFEZgatiko atxikipenak	-	5.831	-	8.357
▪ Gizarte Segurantzaren erakundeak	-	5.923	-	4.902
Guztira	-	76.448	-	122.119

Zerga egoera

Indarrean dauden lege xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta zerga agintariak ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio epea igaro arte. Ondorioz, balizko ikuskapenen ondorioz, sozietateak erregistratu gabeko pasiboak sor litezke. Sozietatekoen ustez, ordea, pasibo horiek, gertatuz gero, ez lirateke esanguratsuak urteko kontuetan, oro har hartuta.

Zerga aitortzen ezin dira behin betikotzat jo zerga agintariak ikuskatu edo preskripzio epea igaro arte. Preskripzio epe hori lau zergaldikoa da.

2020ko abenduaren 31n, sozietateak zerga ikuskaritzari irekita dauzka 2017 ekitalditik 2020ko ekitaldira arte ordaindu behar dituen zerga guztiak.

Ikuskatzeke dauden ekitaldietarako, pasibo eta zerga kontingentzia batzuk ezin dira objektiboki kuantifikatu eta haien artean ez da hornidurarik erregistratu erantsitako urteko kontuetan.

14. oharra: DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

a) **Negozio zifraren zenbateko garbia**

Negozio zifraren zenbateko garbia bidesariak kobratuz lortutako diru sarrerei dagokie, batez ere.

b) **Gizarte kargak**

Erantsitako galera eta irabazien kontuaren epigrafe hau honela dago osatuta:

Kontzeptua	2020	2019
Enpresaren konturako Gizarte Segurantzza	69.401	68.951
Bestelako gizarte gastu batzuk	408	390
Guztira	69.809	69.341

15. oharra: HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

15.1- **Hornidurak**

Hauek dira ekitaldiko horniduren xehetasuna eta mugimendua:

Hornidura mota				
	2019ko abenduaren 31ko saldoa	Eguneraketa gatiko doikuntzak	Perimetroaren altak	2020ko abenduaren 31ko saldoa
Epe luzea:				
▪ Ibilgetua desmuntatzea, kentzea edo birgaitzea	824.892	32.767	125.000	982.659
Guztira	824.892	32.767	125.000	982.659

Eguneratzeagatiko doikuntzak % 3ko interes tasa aplikatuz kalkulatu dira 2020an (% 3 2019an). Haien eragina finantza gastu gisa erregistratu da erantsitako galera-irabazien kontuan.

16. oharra: INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldien itxieran ez zegoen ingurumena

babesteko eta hobetzeko aktiborik, eta ez da ingurumen izaerako gasturik egin.

Sozietatearen administratzaileen iritzian, ez dago ingurumena babestu eta hobetzearekin loturiko kontingentzia esanguratsurik, eta ez da beharrezkoa kontzeptu horiei buruzko zuzkidurarik erregistratzea, 2019ko eta 2020ko abenduaren 31n amaitu diren urteko ekitaldietarako.

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan ez da ingurumenari lotutako dirulaguntzarik eta sarrerarik eskuratu.

17. oharra: ITXIOSTEKO GERTAKARIAK

Ez da gertaera aipagarrikerik izan ekitaldiaren itxiera dataren eta urteko kontuak formulatu ziren dataren artean.

18. oharra: LOTURA DUTEN ALDERDIEKIKO ERAGIKETAK

18.1- Administratzaileekiko eta goi zuzendaritzarekiko saldoak eta transakzioak

2020ko eta 2019ko abenduaren 31n administrazio kontseiluko kideek ez dute soldata, dieta edo bestelako ordainsaririk sortu, eta ez daukate aurrerakinengatik saldirik ez krediturik sozietatearekin. Era berean, sozietateak ez du inolako betebeharririk, pentsioei eta bizi aseguruiei dagokienez, administrazio organoko kide izan direnekin edo gaur egungo kideekin, eta ez du haien konturako betebeharririk berme gisa.

2020ko abenduaren 31n ez dago konpromisorik administrazio organoaren alde emandako pentsioetarako osagarri, abal edo bermeengatik.

Administrazio kontseiluari buruzko bestelako informazioa

Kapital sozietateen legea aplikatuz, jakinarazten da sozietatearen administrazio organoko

kideek ez daukatela partaidetzarik helburu sozial bera, antzekoa edo osagarria duten beste sozietate batzuetan.

Halaber, eta arestian aipatu den kapital sozietateen legearen arabera, jakinarazten da administrazio organoko kideek ez dutela merkatuko baldintza arruntetan egin ez den trafikoaz kanpokotzat jo daitekeen jarduerarik egin, ez norberaren ez inoren kontura, sozietatearekin.

Administratzaileek ez dute eman sozietatearekin izan lezaketen zuzeneko edo zeharkako ezein gatazka egoeraren berri, kapital sozietateen Legearen 229.3 artikuluan xedatzen den bezala.

Sozietatearen transakzioak, Bazkide Bakarrarekin

2004ko urtarrilaren 20ko 32/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Gasteiz-Eibar autobidearen Arabako zatia finantzatzeko eragiketaren egituratze ekonomikoari buruzko Foru Arau Proiektua onetsi zuen.

2004ko martxoaren 30eko 246 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Arabako Bideak SArekin hitzarmena izenpetzea onetsi zuen, haren altxortegiko funts likidoak Arabako Foru Aldundiaren kutzako baliabideetan sartzeko.

2004ko ekainaren 22ko 44/2004 Foru Dekretuaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Gasteiz eta Eibar arteko AP-1 autobidearen Arabako zatia erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesaria ezarri zuen.

2004ko martxoaren 9ko erabakiaren bidez, Arabako Bideak SAko Akziodunen Batzar Nagusiak onetsi zuen Arabako Bideak SAREN kapital gehikuntzan parte hartzea eta guztira 103.914 akzio harpidetzea.

Uztailaren 30eko 653/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen Arabako Bideak SAREN kapital gehikuntzan parte hartzea eta guztira 49.086 akzio harpidetuz.

Abenduaren 21eko 1024/2004 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen Arabako Bideak SAREN kapital gehikuntzan parte hartzea eta guztira 203.198 akzio harpidetzea.

Apirilaren 13ko 428/2005 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak erabaki zuen "Gasteiz-Eibar autobidea Lukutik Gipuzkoako probintzia mugarainoko zatian egiteko obrek eragindako Legutioko presio handiko gas sarea aldatzeko proiektua" bidaltzea Arabako Bideak SARI, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

Ekainaren 3ko 640/2005 zenbakiko Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak erabaki zuen "Gasteiz-Eibar autobidea egiteko ukituko diren linea elektrikoak aldatzeko proiektua. Etxabarri Ibiña - Luku zatia" Arabako Bideak SARI bidaltzea, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

2005eko ekainaren 7ko Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen "Gasteiz-Eibar autobidea egiteko obrek eragindako Bartzelona-Bizkaia-Valentzia gasbidea aldatzeko proiektua" bidaltzea Arabako Bideak SARI, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

2005eko irailaren 23ko 808 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak behin betiko onetsi zuen Gasteiz-Eibar autobidea egiteko proiektua. Etxabarri Ibiña-Luku zatia.

Azaroaren 8ko 1009/2005 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 5.170.000 euroko diru kopurua erreserbatzea Arabako Bideak SArentzat, AP-1 Gasteiz-Eibar autobidearen Arabako zatiaren eraikuntzan eta ustiapenean finantza nahikotasuna ziurtatzen duten geroko kapital gehikuntzak bermatzeko.

Azaroaren 15eko 1044/2005 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen "Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri Ibiñatik Lukurako zatian egiteko obrek eragindako Barcina-Itsaso 400 kV-eko linea aldatzeko proiektua" bidaltzea Arabako Bideak SAri, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

374 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen Arabako Bideak SAri bidaltzea "Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri-Luku zatian egiteko obrek eragindako telefono lineak aldatzeko proiektua", hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

610 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen "Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri-Luku tartean egiteko proiektuak Etxabarrin aurreikusten duen ordainlekua argindarrez hornitzeko instalazio eta egokitze proiektua" Arabako Bideak SAri bidaltzea, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

611 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen "Gasteiz-Eibar autobidea Etxabarri-Luku zatian egiteko proiektuak Etxabarrin aurreikusten duen lotunea argitzatzeko hiru aginte zentroak argindarrez hornitzeko instalazio eta egokitze proiektua" Arabako Bideak SAri bidaltzea, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

Uztailaren 4ko Diputatuen Kontseiluaren 586/2006 Erabakiaren bidez, erabaki zen "Bartzelona-Bilbo gasbidea aldatzeko proiektua, Gasteiz-Eibar AP-1 autobidearen eragina dela eta. Etxabarri Ibiña - Luku zatia" bidaltzea Arabako Bideak SAri, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan burutzeko.

Otsailaren 8ko 65/2007 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen "Lukuko tunelaren hegoaldeko ahoan energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua" bidaltzea, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

Otsailaren 8ko 64/2007 Foru Aginduaren bidez Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen “Lukuko tunelaren iparraldeko ahoan energia elektrikoa hornitzeko instalazioa egiteko proiektua” bidaltzea Arabako Bideak SAri, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

Apirilaren 17ko 296/2007 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen “Lukuko ordainlekua eta Lukuko lotuneko argiztapenerako aginte zentroa energia elektriko hornitzeko instalazioa egiteko proiektua” bidaltzea, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

Uztailaren 16ko 564/2007 Foru Aginduaren bidez, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuak xedatu zuen “Lukuko tunela energia elektriko hornitzeko azpiegitura berriaren baldintza tekniko eta ekonomikoen azterlana” onestea eta Arabako Bideak SAri bidaltzea, hura finantzatzeko eta eragindako obren eremuan gauzatzeko.

Abenduaren 28ko 1181/2007 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak SAren sozietate kapitalaren 5.170.000 euroko gehikuntzan parte hartzea.

Apirilaren 22ko 229/2008 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen abenduaren 18ko 22/2007 Foru Arauak baimendutako Arabako Bideak SA foru sozietate publikoaren zorpetzea (12.000.000 euro) onestea.

Apirilaren 22ko 230/2008 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Arabako Bideak SAk eta Arabako Foru Aldundiak hitzartutako akordioa onetsi zuen, AP-1 Gasteiz-Eibar autobidearen Arabako zatia egin, kontserbatu, mantendu, ustiatu eta finantzatzeko.

Maiatzaren 16ko 293/2009 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Arabako Bideak sozietatea atxikitzea Vitoria-Gasteiz AP-1 autobidearen eragiketa eta ustiapen kontratua. Kontratu hori Bidegi SAren eta Bidelan SAren artekoa zen, eta atxikipen berriaren xedea zen hura Arabako zatira hedatzea.

2009ko maiatzaren 19an, Diputatuen Kontseiluak zergen arloko presako dekretu arauemaile bat

egitea erabaki zuen, 3 zenbakikoa. Horren bitartez, indargabeturik geratu zen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 22ko 44/2004 Foru Dekretua, Vitoria-Gasteiz AP-1 Autobidea Arabako zatian erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesariaren zenbatekoa finkatu zuena.

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 19ko 292/2009 Erabakiaren bidez, Arabako Bideak SARI eskatu zitzaion dirulaguntza programa bat gara zezala, AP-1 autobidearen Arabako zatia erabiltzeagatik ordaindu beharreko bidesaria ordaintzen laguntzeko Arabako Lurralde Historikoko biztanleei.

Ekainaren 16ko 388/2009 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen sozietatearen kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, 100na euroko balio izendatua zuten 4.000 akzio harpidetu ziren; guztira, 400.000 euro.

Erkainaren 23ko 407/2009 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen sozietatearen kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, 100na euroko balio izendatua zuten 16.820 akzio harpidetu ziren; guztira, 1.682.000 euro.

Apirilaren 27ko 368/2010 Foru Aginduaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Gaztedi Rugby Taldearekin lankidetzan aritzea eta hitzarmen horretarako ekarpen gisa 24.000 euro ematea.

Uztailaren 20ko 473/2010 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 290.785 euroko funtsak ordaintzea Arabako Bideak SARI, 2009ko uztailetik 2010eko ekainera arteko interesak ordaintzeko, Vital Kutxarekin AP-1 finantzatzeko sinatutako mendeko maileguagatik.

Abenduaren 30eko 939/2010 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen egun horretan bertan sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak onetsitako kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, 100na euroko balio izendatua zuten 4.000 akzio harpidetu ziren; guztira, 400.000 euro. 2010eko abenduaren 31n ez zen kapital gehikuntza horretarako inolako ordainketarik egin.

Abuztuaren 2ko 434/2011 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 2.523.352 euroko funtsak ordaintzea Arabako Bideak SARI, AP-1 autobidea finantzatzeko tartekako kreditu kontratuari zegokion zorraren urteko estaldura ratioa betetzeko.

Ekainaren 28ko 362/2011 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen 576.648 euro ematea Arabako Bideak SAri, 2010eko uztailetik 2011ko ekainera arteko interesak ordaintzeko, Vital Kutzarekin sinatutako mendeko maileguagatik, eta 311.658 euro ematea Banco Guipuzcoanorekin AP-1 autobidearen finantzaketarako sinatutako mendeko maileguaren interesak ordaintzeko.

Ekainaren 26ko 360/2012 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen 3.416.437 eurokoa ekarpen bat egitea Arabako Bideak SAri; ekarpen horretako 737.581 euro Arabako Foru Aldundiak finantza karguaren bermeari buruz Arabako Bideak SArekin zuen konpromisoari zegozkion, Vital Kutzarekin eta Banco Guipuzcoanorekin sinatu eta 2012an ordaindu beharreko mendeko maileguen interesen ondoriozko galerak konpentsatzeko, eta 2.678.856 euro bazkideen ekarpenri, 2011ko ekitaldiko galerak konpentsatzeko.

Otsailaren 5eko 65/2013 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen 3.245.615 euroko ekarpena egitea Arabako Bideak SAri, bazkideen ekarpen gisa, 2012ko ekitaldiko galerak konpentsatzeko.

Urtarrilaren 28ko 31/2014 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen 2.844.145,96 euroko ekarpena egitea Arabako Bideak SAri, bazkideen ekarpen gisa, 2013ko ekitaldiko galerak konpentsatzeko.

Urtarrilaren 27ko 35/2015 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen 2.862.924,97 euroko ekarpena egitea Arabako Bideak SAri, bazkideen ekarpen gisa, banku sindikatuarekin sinatutako tartekako kreditu kontratuan jasotako betebeharrak betetzeko.

Urriaren 23ko 181/2015 Foru Aginduaren bidez, onetsi zuen 75.000 euroko ekarpena egitea Arabako Bideak SAren alde, AP-1ean gatza biltegitratzeko silo bat eraikitzeko.

Urtarrilaren 24ko 29/2016 Erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak, Akziodun Bakarrek, onetsi zuen 2.500.000 euroko ekarpena egitea, bazkideen ekarpen gisa, banku sindikatuarekin sinatutako tartekako kreditu kontratuan jasotako betebeharrak betetzeko.

2016ko martxoaren 22an eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak emandako kreditua gaitzeko 8/2016 espedientearen erabakiaren barruan, sozietatearen alde 275.000 euroko kreditu bat gaitzea onetsi zen, Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuen

barruan, 2016ko ekitaldirako.

Foru Gobernu Kontseiluak (lehenago, Diputatuen Kontseiluak) erabaki zuen sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak 2017ko uztailaren 11n erabakitako kapital gehikuntzan parte hartzea, 100na euroko balio izendatua duten 68.000 akzio harpidetuz; horrek, guztira, 6.800.000 euroko zenbatekoa egiten du. 2017ko apirilaren 6an, 4.800.000 euroko aurrerakina ordaindu zen, eta 2017ko uztailaren 28an gainerako 2.000.000 euroak.

Azaroaren 19ko 634/2018 Erabakiaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki zuen sozietatearen kapital gehikuntzan parte hartzea. Horretarako, 100na euroko balio izendatua zuten 20.000 akzio harpidetu ziren; guztira, 2.000.000 euro, 2018ko abenduaren 5ean ordainduak.

Urtarrilaren 8ko 3/2019 Erabakiaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko Aurrekontuaren kredituak eta horien zenbatekoa onetsi zituen, bai eta zegozkien konpromiso kredituak ere. Aurrekontu horren barruan sartzen da “Arabako Bideak Arabat kapital gehikuntza” izeneko partida, 1.500.000 euroz hornitua. Sozietatearen akziodun bakarrak 100na euroko balio izendatua zuten 15.000 akzio harpidetu zituen, eta 2019ko azaroaren 29an ordaindu ziren.

Arabako Lurralde Historikoko 2020. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauak onetsi zuen sozietatearen kapitalari 1.500.000 euro gehitzea.

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 16ko 293/2009 Erabakiaren bidez onetsitako atxikitze kontratuaren indarraldia 2018ko ekainaren 5ean amaituko da, eta 5 hilabetez luzatu ahalko da. 2018ko irailaren 26an, sozietateko administrazio kontseiluak erabaki zuen AP-1 Araba S.A emakidadunari esleitzea Gasteiz-Eibar AP-1 autobidea egin, kontserbatu eta mantentzeko kontratua. Kontratu berriak 8 urteko ustiapen aldi bat jasotzen du, kontratua formalizatzen den unetik aurrera. 24.198.000 milioi euroko prezio finkoa ezartzen du denboraldi horretarako.

Arabako Lurralde Historikoaren 2021. urterako aurrekontua gauzatzeari buruzko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak baimena ematen dio Arabati 5.000.000 euroko zorpetze eragiketak hitzartzeko eta Arabako Foru Aldundiari eragiketa horiek bermatzeko.

Nota 1- **19. oharra: ARGIBIDE GEHIAGO**

Hona hemen 2020ko eta 2019ko ekitaldietan enplegatutako pertsonen batez besteko kopurua, kategoriaka banatuta:

Kontzeptua	2020	2019
Teknikariak	3	3
Administrariak	3	3
Guztira	6	6

Hona hemen sozietateko langileen banaketa ekitaldi bakoitzaren amaieran, kategorien eta sexuaren arabera, zuzendariak eta kontseilariak barne:

Kontzeptua	2020			2019		
	Gizonezkoak	Emakumeak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumeak	Guztira
Administratzaileak	3	2	5	4	1	5
Teknikariak	2	1	3	2	1	3
Administratzaile ofizialak	-	3	3	-	3	3
Guztira	5	6	11	6	5	11

Honako informazio hau jaso da, 51/2013 Foru Dekretua betetzeko:

Langileei buruzko datuak eta AFaren ekarpenak	2020	2019
Langileen kostua:		
Langile gastuak	342.763	335.216
Plantilla	6	6
AFaren ekarpenak:		
Kapital dirulaguntzak	-	-
Dirulaguntzak ustiapenari	-	-
Ekarpenak galerak konpentsatzeko	-	-
Kapital gehikuntzak	4.000.000	1.500.000

2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion urteko kontuen ikuskaritza zerbitzuek sortutako ordainsarien zenbatekoa 10.200 euro izan da (8.036 euro aurreko ekitaldian).

ARABAKO BIDEAK – VÍAS DE ÁLAVA SA

Kudeaketa txostena

- 2020ko ekitaldia -

Sarrera

Arabako Bideak SAre (hemendik aurrera, sozietatea) xede nagusia da Gasteiz-Eibar AP-1 autobidea egin, kontserbatu, mantendu eta ustiatzea, bere kabuz edo hirugarren pertsonen bitartez, Arabako Lurralde Historikoa zeharkatzen duen zatian.

Sozietateak Espainiako lurraldean dihardu.

Negoioen bilakaera eta sozietatearen egoera

2020an, ibilgailuen eguneko batez besteko intentsitatea (EBBI) 11.232 ibilgailu izan da Luku-Muga zatian, eta 6.580 ibilgailu Etxabarri Dibiña-Luku zatian. Horrenbestez, 2019ko ekitaldiarekin alderatuta, % 31,86 eta % 33,10 ibilgailu gutxiago izan dira tarte bakoitzean, hurrenez hurren.


2020ko martxoaren 14an, Espainiako Gobernuak 463/2020 Errege Dekretua eman zuen, zeinaren bidez alarma egoera deklaratu baitzuen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Hartutako neurrien artean, estatuan zein nazioartean mugitzeko muga handiak zeuden. 2020. urte osoan eutsi zaie neurri horiei, eta horrek zuzenean eragin dio trafiko bolumenari eta, ondorioz, sozietatearen negozio zifrari.

Urteko EBBI 2019an eta 2020an:

	Ligeros	Pesados I	Pesados II	Total	dif.	Total 2019
Luko-Muga	9.360	416	1.456	11.232	-31,86%	16.484
Etxabarri-Luko	5.323	238	1.020	6.580	-33,10%	9.837

Hileko EBBI 2020an:

	LUKO - MUGA 2020					ETXABARRI - LUKO 2020				
	Ligeros	Pesados I	Pesados II	Total	%dif	Ligeros	Pesados I	Pesados II	Total	%dif
ENE	11.917	504	1.489	13.910	3,0%	6.263	303	993	7.559	3,3%
FEB	11.368	540	1.680	13.588	4,0%	5.475	320	1.137	6.932	2,9%
MAR	5.977	413	1.469	7.859	-42,0%	3.203	245	1.027	4.475	-38,6%
ABR	1.877	225	941	3.043	-80,4%	876	117	688	1.681	-81,9%
MAY	3.507	294	1.120	4.921	-66,7%	1.720	150	795	2.665	-66,7%
JUN	8.113	416	1.421	9.950	-35,4%	3.979	230	994	5.203	-37,7%
JUL	14.683	485	1.524	16.692	-24,3%	9.218	272	1.051	10.541	-28,2%
AGO	17.704	354	1.350	19.408	-31,9%	12.857	212	993	14.062	-35,4%
SEP	11.609	462	1.688	13.759	-16,0%	6.431	257	1.191	7.879	-17,9%
OCT	10.174	454	1.706	12.334	-19,8%	5.389	259	1.212	6.860	-18,8%
NOV	6.755	444	1.703	8.902	-37,1%	3.327	247	1.180	4.754	-36,6%
DIC	8.472	407	1.397	10.276	-31,7%	4.927	241	990	6.158	-28,5%



Urteko dirubilketa 2020an:


2020ko ekitaldiko dirubilketa garbia 7.067.720 € izan da (8.551.942 €, BEZa barne). 2019ko aldi berean 9.613.189 € izan zen. Horrenbestez, aipatutako aldiaren dirubilketaren aldea - % 26,48 da. Zenbateko hori ezarritako mugikortasun mugek trafikoan eragindako murrizketaren emaitza da. Hona hemen 2020ko hileko dirubilketa, 2020ko abenduaren 31ko 00:00ak arte:

	Crédito	%	Metálico	%	Ligeros	%	Pesados I	%	Pesados II	%	Total
ENE	740.548 €	86%	118.509 €	14%	638.207 €	74%	48.160 €	6%	172.690 €	20%	859.058 €
FEB	704.925 €	90%	81.610 €	10%	555.107 €	71%	48.140 €	6%	183.287 €	23%	786.534 €
MAR	492.693 €	92%	41.186 €	8%	321.080 €	60%	39.338 €	7%	173.460 €	32%	533.879 €
ABR	218.338 €	99%	1.405 €	1%	90.313 €	41%	20.266 €	9%	109.163 €	50%	219.742 €
MAY	336.165 €	99%	4.289 €	1%	180.901 €	53%	26.677 €	8%	132.875 €	39%	340.453 €
JUN	576.053 €	94%	35.065 €	6%	410.435 €	67%	37.931 €	6%	162.752 €	27%	611.118 €
JUL	914.074 €	86%	150.179 €	14%	839.579 €	79%	45.241 €	4%	179.433 €	17%	1.064.253 €
AGO	1.036.189 €	83%	219.591 €	17%	1.059.620 €	84%	33.853 €	3%	162.306 €	13%	1.255.780 €
SEP	762.427 €	90%	81.817 €	10%	609.525 €	72%	41.382 €	5%	193.337 €	23%	844.244 €
OCT	726.835 €	92%	63.648 €	8%	544.455 €	69%	42.957 €	5%	203.072 €	26%	790.483 €
NOV	544.716 €	95%	30.496 €	5%	340.846 €	59%	40.361 €	7%	194.005 €	34%	575.212 €
DIC	603.635 €	90%	67.551 €	10%	466.740 €	70%	38.628 €	6%	165.818 €	25%	671.186 €
	7.656.597 €		895.345 €		6.056.808 €		462.935 €		2.032.198 €		8.551.942 €

* Los importes incluyen el IVA

Importe neto sin IVA: 7.067.720 €

Importe neto 2019: 9.613.189 €



Galdu-irabazien salmenta zifraren zenbatekoa (7.179.600) eta bidesari sistemaren dirubilletaren zenbatekoa (7.067.720) ez datoz guztiz bat, eskudirutan bildutakoa ez baita egunka (00:00etatik 00:00etara) kalkulatzen, ordainlekuan jasotako zakukadaka baizik; beraz, beti dago nolabaiteko aldea kontabilitateko salmenten zifraren zenbatekoaren eta bidesariaren

bilketaren artean. Ekitaldia itxi ondoren, eskudiruaren jarraipena egiten da, kontuan sartutako eskudirua bidesari sistemakoarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Negozioek 2021ean ustez izango duten bilakaera

2021eko ekitaldirako, diru sarrera garbiak % 12,04 handitzea aurreikusten da, estatuko nahiz atzerriko mugikortasunaren murrizketak pixkanaka kentzearen eta tarifa igoera (% 5) aplikatzearen ondorioz. 2021erako aurreikusitako dirubilketa, guztira, 7.792.083 € da, BEZik gabe (9.428.420 €, BEZa barne).

Arrisku eta ziurgabetasunen balorazioa

Sozietateak merkatuan jarduteagatik jasan behar dituen kreditu arriskuari, interes tasaren arriskuari, likidezia arriskuari eta eskudiru fluxuen arriskuari dagokienez, uste dugu ez direla sektoreko gainerako enpresenak bezalakoak eta ez direla arrisku handiegiak, enpresaren etorkizuneko bideragarritasuna kolokan jar dezaketen horietakoak.

Beste kontu batzuk

Ekitaldian ez da ikerketa eta garapen arloko jarduketarik egin sozietatearen jardueraren ondorioz.

Sozietateak, gaur egun, ez dauka partaidetza propiorik autozorroan, eta ez da horrelako eragiketarik egin 2020ko ekitaldian.

Itxieraz geroko gertaerak

Ez da izan itxieraz geroko gertaera aipagarririk.